



Kofinantzatua Europar Batasuneko + Erasmus programaren bidez

Newsletter 3  
2018 Urtarrila



**Growing the Market in Accessible Tourism (GROWMAT)**

### Zer egin dugu orain arte...

Growmat proiektuko kideak gogor saiatu gara eskuragarritasunaren eta turismo eskuragarriaren "kausa" barreiatzeko eta defendatzeko erakunde eta pertsona ezberdinengana zuzenduz. Une hauetan jadanik bi ekitaldi biderkatzaile antolatu ditugu, bat Donostian eta bestea Esloveniako Mariborren; bestalde aipagarria da interes handia piztu duen mahai inguru bat, Greziako Tesalonikan ospatu dena, 2017 Efvét Urteko Konferentziaren baitan.

Gure azken topaketa transnacionalean zehar iazko izenburua aldatzea adostu genuen, "Turismo Eskuragarria" izatetik "Turismo inklusiboa" izateko.

Erresuma Batuko prestakuntza astearen ondoren, prestakuntza planifikatu genuen, ikaskuntzarako baliabideak prestatuz eta 2 ikastaro diseinatu, izan ere, gure talde hartzaileak dira alde batetik, jadanik existitzen diren enpresak eta bestetik, ostalaritza eta turismoko ikasleak; talde biak erabat ezberdinak dira, beraz, gure ustean beharrezkoa zen bi antzeko ikastaro garatzea, talde bakoitzarekin egokitzea bilatuz. Halaber komenigarria iruditu zitzaigun 2/3 mailako ikasleentzat oinarrizko ikastaro bat sortzea, Goi Mailako Heziketako (5/6) ikasleek erabili ahal izango dutena.

### GROWMAT proiektuko kideak



Cofinanciado por el  
programa Erasmus+  
de la Unión Europea



European Forum  
of Technical and Vocational  
Education and Training



*"Europar Batzordeak argitalpen honen ekoizpenerako emandako laguntza ez dator babestera autoreen iritziak soilik islatzen dituzten edukiak, eta Batzordea ez da arduratuko horietan barne hartutako informazioarekin egin daitekeen erabileraz"*



Kofinantzatua Europar Batasuneko + Erasmus programaren bidez

**Newsletter 3**  
**2018 Urtarrila**

**T2 CONSULTING**



*"Europar Batzordeak argitalpen honen ekoizpenerako emandako laguntza ez dator babestera autoreen iritziak soilik islatzen dituzten edukiak, eta Batzordea ez da arduratuko horietan barne hartutako informazioarekin egin daitekeen erabileraz"*

## Esloveniako ekitaldi biderkatzailea

2017ko urriaren 12an eta Maribor hiriko »Ardo Urtetsuaren Jaialdia« ekitaldi ospetsuaren baitan, Srednja šola za gostinstvo in turizem Maribor eskolak, 2017ko urriaren 12an, »Joera Berriak sektore Turistikoan« mintegia antolatu zuen. Mintegia eskolako irakasleek zuzendu zuten, bidaia agentzietako ordezkariekin batera.



Mintegira etorri ziren eskualdeko Turismo Agentzietako eta Hoteletako ordezkariak, SŠGT Maribor eskolako ikasleak, Kroaziako eta Mazedoniako ikasleak.

GROWMAT proiektua aurkeztu zuten Janko Štruc turismo irakasle eta proiektuko kideak hala nola nazioarteko proiektuetan oso aktiboa den Kim Neubauer ikasleak.

## Beste ekitaldi biderkatzailea Donostian ospatu zen



2017ko urriaren 31n, GROWMAT proiektuko hiru kide, hau da, CDEA (Goi Mailako

Ostalaritza eta Turismo Eskola), Errotu (Arkitektura Ingurune Terapeutiko Pertsonalizatueterako) eta Hotel Advisor Consulting (Ostalaritza Gestioa, Marketina eta Aholkularitza) arduratu ziren Turismo Eskuragarriaren inguruko konferentziaren antolaketa, CDEA-ko instalaziotan.

Ekitaldi honekin, ostalaritza eta turismoko langileak hala nola etorkizuneko enpresariak sentibilizatu nahi izan genituen, turismo eskuragarriaren sektorean aukera berriak sortzeko, urtarokotasunaren hedatzeko eta guztion beharrak asetzeko beharraren inguruan.

Turismo Eskuragarria esatean turismo inklusiboaz ari gara, hau da, pertsona guztiak barne hartzen dituen, mugikortasun, entzumen, ikusmen arloetan, kognitiboan, intelektualean edo siko-sozialetan aniztasun funtzionala dutenak hala nola adineko pertsonak edota aldi baterako aniztasun funtzionala jasaten dutenak.

Growmat proiektuak, bestalde, bilatzen du turismo eskuragarriaren arloan prestakuntza ikastaroak sortzea; urte-sasoitik kanpoko turismoa hedatzeko aukerak bultzatzea eta lankidetzarako sare sozialak sortzea, hezkuntza, negozioak, GKE ezberdinak eta gizarte enpresak direla medio.

Jardunaldian zehar, kideez gain partaide izan ziren Bask for all ("Turismoa pertsona guztientzat") agentziako Asier Landa eta Zuriñe de Anzola, Marketin Inklusiboko Ideas Fundazioko Luis Casado, SECOT-eko (Lankidetzaren Teknikorako Seniorren Elkarte) Graciela Imaz; AFAKI-ko (Alzheimer eta bestelako demenziak jasaten dituzten Pertsonen Familiakoen eta Lagunen Gipuzkoako Elkarte) Koldo Aulestia; ELKARTU-ko (Desgaitasun fisikoa jasaten duten Pertsonen Gipuzkoako Koordinakundea) Norma Andrade;

Gipuzkoako Aldundiko Xabier Eleizegi eta Josu Maroto; Donostia-San Sebastianeko Udaleko Isabel

Aguirrezabal; Donostiako Zenit Hoteleko Fernando Soto eta Donostiako Ostalaritza Elkarteko Kino Martínez.



Enpresak, erakundeak eta elkarteak eztabaidan aritu dira Gipuzkoako Turismo Eskuragarriaren egoerari buruz eta ondorioztatu dute egoera beste hainbat eremuetan ikusitakoa baina hobea izan arren, oraindik hobetzeko eta sensibilizatzeko asko dagoela eta aldi berean ezinbestekoa dela egiten diren eta jakitera ematen ez diren ekimen guztiak agerian jartzea. Gainera, Bask For All agentziako Zuriñe de Anzolak esan duen bezala, “sarritan, Administrazioak aniztasun funtzionaleko pertsonen aldeko neurriak hartu izan arren, pertsonak dira behar ezberdinak dituzten pertsonekin interakzioan moldatzen ikasi behar izaten dutenak”.



Jardunaldi honekin, halaber, bilatu da ostalaritza eta turismoko langileak eta etorkizuneko ekintzaileak sensibilizatzea turismo eskuragarriaren sektorean negozio aukera berriak sortzeko behararen inguruan,

horrela urtarokotasuna hedatzea eta pertsona Guztien beharrak asetzea ahalbidetzeko asmoz.

**EfVET konferentzia - 2017ko urria**

**Lana eta Hezkuntza etorkizunarekin lerrokatuta**

Beste ekitaldi garrantzitsu bat ospatu zen 2017ko urrian, hain zuzen Greziako Thessaloniki hirian, 2017 EfVET Nazioarteko Konferentziaren baitan. Konferentzia honetara 200 partaide baino gehiago etorri ziren, gehienak beste herrialde europar batzuetakoak, baita Errusia, Hong Kong eta Estatu Batuetakoak ere.

Konferentzia honetan zehar Mahai-inguru bat ospatu zen, gure proiektuaren inguruan informazio gehiago eskuratzeko asmotan bertaratutako 14 pertsonekin. Bereziki interesgarria gertatu zen Finlandiako bi antolatzaileentzat, izan ere, Haaga-Helia Zientzia Aplikatuen Zientzietako Unibertsitateko gure kideekin elkarlanean jarduteko interesatuta azaldu ziren.



**Halaber gure bigarren bilera transnazionala ospatu dugu Mariborren**



**Bisitatu gure webgunea .....** Zatoz eta elkartu GROWMAT Komunitatearekin [www.growmat.eu](http://www.growmat.eu)